

Diploma banaketa 2014-2015 promozioiko Ingeniaritzetako Graduko ikasleei

2016/05/20

Gaur ostirala, maiatzak 20, Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoak diplomak emango dizkie 2014-2015 promozioiko Ingeniaritzetako Graduko ikasleei, 18:00etatik aurrera, Arrasateko Amaia antzokian. Guztira 221 ikaslek jasoko dituzte diplomak, horietatik 60 emakumeak direlarik.

Diploma-banaketa bihar egingo da, Goi Eskola Politeknikoko koordinatzaile nagusi Carlos Garciak inauguratuko duen ekitaldi-akademikoan. Ondoren, Asier Lizarriturrik, Kiro Roboticeko ingeniaria-zuzendariak, hitzaldia egingo du “Bidea edo helburua” izenburupean. Ekitaldia ixteaz Mondragon Unibertsitateko errektore Vicente Atxa arduratuko da.

Titulu horiek lortzeko, ikasle guztiek Karrera Amaierako Proiektua egin dute, enpresaren batekin lankidetzan. Horietako enpresa asko atzerrikoak izan dira: Frantziakoak, Suediakoak, Turkiakoak, Txekiar Errepublikakoak, Italiakoak, Poloniakoak, Erresuma Batukoak, Danimarkakoak eta Suitzakoak, besteak beste.

